



**ARRATIAKO UDALEN  
MANKOMUNITATEA**

BERDINTASUN ZERBITZUA

## **ZEANURIKO UDALA**

### **2014KO EBALUAZIOA.**

#### **Sarrera**

2014an, aurreko urteetan legez, Zeanuriko Udalak AUMko Berdintasun Zerbitzuaren laguntza izan du Berdintasunerako politikak aurrera eroateko.

Proposatuko diren ekintza batzuk Zeanurin antolatu eta bertan zertzeko izan dira, eta beste batzuk Arratia guztirako ekintzak izan dira.

Horrezaz gain, AUMk ere Emakunderen diru-laguntzak lortu ditu proiektu bi aurrera eroateko: Berdintasun printzipioa gastu publikoko programetan txertatzeko Diagnostikoa eta Plan Zuzentzailea eta Genero indarkeriaren aurkako Arratiako Udalen Mankomunitatearen Diagnostikoa eta I. Jarduera Plana.

Proiektu biak 2014an gauzatu dira eta zuzeneko eragina izango dute Zeanuriko Udalaren berdintasun politikak finkatu eta egonkortzeko orduan.

#### **Lan ildoak**

##### **1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA**

Zeanuriko Udalak genero ikuspegia udalaren jardueretan txertatzeko prozesua jarri zuen martxan 2013an. Hala, prozesuan lau ardatz landu dira: erabilitako hizkera eta irudiak, datu desagregatuak, osaketa parekidea eta berdintasun klausulak.

2014an, prozesuak aurrera jarraitu du. Gainera, kontuan izan behar da AUMk honako proiektua egiteko Emakundeko diru-laguntza lortu duela: Berdintasun printzipioa gastu publikoko programetan txertatzeko Diagnostikoa eta Plan Zuzentzailea: Arratiako Udalen Mankomunitateko Udaletako Diru-laguntzak, Kontratuak eta Hitzamenak.

Proiektua egiteak berebiziko garrantzia izan du, hasitako prozesua finkatu eta egonkortu egingo duelako.

Hain zuzen ere Zerbitzuak prestakuntza, jarraipena, ebaluazioa eta materiala prestatu eta zertu ditu, apurka-apurka genero ikuspegia jarduera guztietan sar dadin.

2014an, eta aipatutako proiektua gauzatzeko, honako ekintzak proposatu dira:

- Prozesuaren aurkezpena udal politikariei.

- Banakako prestakuntza saioekin jarraitzea.
- Berdintasun klausulak: Berdintasun klausulen gida prestatzea, dokumentu praktikoa izan dadin.
- Kultura, Kirola, Gazte, eta Euskara Sailekin koordinazio batzarrak egitea, berdintasun arlotik antolatutakoa koordinatzeko eta gainerako arloetan egin beharrekoan genero ikuspegia txertatzeko.
- 2014an, Zeanuriko Udalak Berdinbidean Bizkaia programan hartu du parte, Sexu Aldagaia lan ildoan lantzeko. Egoeraren diagnostikoa egin da eta datorren urteari begira, proposamenak zehaztu dira.

## **2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA GIZARTE BALIOEN ALDAKETA**

2014an ekintza desberdinak antolatu dira ardatzaren barruan:

- Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainak: Bai herrian, bai Arratian antolatutako ekintzetan, Zeanuriko Udalak parte hartu du
- M8, eta A25 eta Adierazpen instituzionalak.
- AUMko berdintasun zerbitzuak ahalduentzea bideratzeko ikastaroak antolatu ditu eta horren berri eman dio Udalari.

## **3. ERANTZUNKIDETASUNEAN OINARRITUTAKO JENDARTE ANTOLAKETA**

- 2014an, AUMko berdintasun zerbitzuak erantzunkidetasunari buruzko tailerra antolatu du Arratiako mutil eta gizonezkoentzat Gizonduz programaren barruan, euren parte hartzea sustatzeko. Aurtengo ikastaroa azaroaren 24an gauzatu zen eta "Indarkeria sexista eta gizonak" izenekoa izan da.
- Zeanuriko Eskolan, hezkidetzak lantzeko batzarrak egin dira.

## **4. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA**

Emakumeen kontrako indarkeria dela eta, 2014an, AUMk Emakunderen diru-laguntza jaso du Genero indarkeriaren aurkako Arratiako Udalen Mankomunitatearen Diagnostikoa eta I. Jarduera Plana egiteko.

Proiektua gauzatzeko berebiziko garrantzia izango du, hasitako prozesua finkatu eta egonkortu egiteko.

Hain zuzen ere Zerbitzuak prestakuntza, jarraipena, ebaluazioa eta materiala prestatu eta zertu ditu, apurka-apurka, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko eragile eta esparru guztiak koordinatu eta bide beretik eragiteko: Udalak, AUM, elkarteak, talde feministak, hezkuntza zentroak, aisialdi taldeak, hedabideak...

**Sentsibilizazioa:**

- 2014an sentsibilizazioa lantzen jarraitu da. Helburua, zeaniztar guztiek indarkeriari buruzko informazioa izatea, indarkeria biziz gero edo bizi duen norbait ezagutzuz gero, jakiteko zelan jokatu.
- Horrezaz gain, Arratiako hedabideen bitartez (Gorbeialde Irratia, Begitu eta AUMko aldizkaria) gaiari buruzko elkarrizketak eta sentsibilizaziorako jarduerak gauzatu dira.

### **Prestakuntza**

- Prestakuntza saioak antolatu dira udaleko beharginentzat, politikarientzat eta herritarrentzat, kasuren bat izanez gero, jakiteko zelan jokatu.
- Gainera, AUMko Berdintasun Zerbitzukoek genero indarkeriaren inguruko prestakuntza jasotzen jarraitu dute, etengabeko trebakuntza ezinbestekoa delako hobeto lan egiteko.

### **Prebentzioa**

- Gazteen artean indarkeria prebenitzeko, AUMko berdintasun zerbitzuak Beldur Barik lehiaketa du. 2014an ere, martxan jarri du lehiaketa.
- Batzarrak egin dira Zeanuriko gazte lekuko arduradunekin, beldur barik lehiaketa koordinatzeko.

### **Arreta**

Indarkeria bizi duten emakumeen arreta hobe emateko eta koordinatzeko, AUMk protokoloa du.

2014ean, jarraitu egin du arreta hobetzeko mahaiak prestatzen:

- Arreta hobetzeko, AUMn mahai bi daude: barne Mahaia, Gizarte zerbitzuek eta berdintasun zerbitzuak osotutakoa eta erakundeen arteko mahai teknikoa: AUMko Gizarte eta berdintasun zerbitzuak, Durangoko Ertzaintza, Arratiako Osasun zentroak eta Galdakaoko Ospitaleko larrialdiak. Mahai bien helburua emakumeei eman beharreko arreta hobetzea eta koordinatzea da.
- 2014an, mahai bina egon dira, protokoloari jarraipena emateko.